

Antzerki ikutuko Preludioa aurten

■ Ruth Martin Biteriko antzerki irakaslea da zuzendari artistikoa, eta antzerki-elkarriketak sartu ditu funtzioan
■ Eszenarioa aldatu egingo da aurten eta publikoari begira jarri ■ Ekainaren 19an da, 22:30etan.

SAN JOAN Preludioa edo Iragarpen kontzertua gaur zortzi izango da, eta aurten ere zenbait nobedade izango ditu. Hamaikagarren edizio honek antzerkia sartuko du aurrenekoz Preludioan. Esketak Preludioari buruzko elkarriketak dira eta plazako balkoiren batean egingo dira. aurten Ruth Martin Biteriko Antzerki ikastaroetako arduraduna da Preludioko zuzendari artistikoa, eta horrek ekarri du haize berria. Antzezleak Mari Karmen Siego eta Jose Luis Gomez dira, Biteriko ikastaroan dabiltzanak biak. Antzerkiak ez ezik, Dantza garaikideak ere eman go du aurten Biteritik Preludiorako saltoa, eta koreografia berezia prestatu dute egun horretarako.

Emanaldi berriak

Hamaikagarren Preludioak 13 emanaldi izango ditu eta San Joan Zortzikoa eta Mendirik Mendi ez besteak berriak izango kontzertuan. Txalapartak hasiko du ekital-



Biteriko antzerki tailerretako jendea arituko da Preludioan.

dia eta Maialen Lujanbioren bertsoak izango dira gero. Ondorenean: Ansorenatarren

Euskal Musikaren gorespena, Bilintxen Juana Bixenta Olabe, Manuel de Fallaren

Ritual de la Danza del Fuego, Laboaren, Txoria txori, John Williansen *Olimpic Fanfarre and theme*, Quisiera ser alcalde eta Axita Jose Inazio Ansorenak moldatuak biak, Jesus Guridiren *Religiosa*, Vangelisen *The conquest of Paradise*, eta Egañaren *Herri*.

Eszenarioa aldatu

Aurtengo Iragarpen Kontzertuan eszenarioa ez da eliza sarrerari erantsita egongo: udaletxe alderago jarriko dute, eta zuzen publikoari begira. Zuzen publikoari begira jarri nahia izan da, hain zuzen ere, aldaketa ekarri duena. Antolakuntzak adierazi duenez, orain arte publikoak erdi-zeharka ikusten zuen, eta oraingo kokapen berrian publikoarentzat erosoagoa izango delakoan daude.

Parte hartzeari dagokionez, musika eta dantzaren inguruko 11 izango dira, eta dena 280 pertsona mugituko ditu. Preludioak 20.500 euroko aurrekontua du. □

Elizatxo Ikastolako jaia

ELIZATXOK gaur egingo du ikastolako jaia eta egun osoan izango dira ekitaldiak. 10.30etan hasita, dantza eta aerobitona, eta pailazoak goizean. Gero, bazkaria izango dute eta arratsaldean jokoak, puzgarriak eta Oskarbi taldea. □

Gimnasia erritmikoa

GAUR eta igandean gimnasia erritmiko exhibizioa izango da kiroldegian. Gaur Euskal Ligako kadeteak, Jubenilak eta amateurak: 10:30-14:00 eta 17:00-19:00 (hernaniarrak goizean arituko dira). Igandean, 11:00etan hasiko dira probak eta Jaione Tejedor bertan izango da. Hernaniarrak datorren astean Espainiako txapelketa du. □

Xalapartan afaria

GAUR egingo da Xalaparta elkarreko urteurren afaria. Sortu zeneko 22garren urteurrena du elkarteak eta hori ospatuko dute. Afalondon emango dira museko sariak. □

PELOTA

Hernani-Azkoitia

FINALAURREKOETAN da Hernani, Herri Arteko Pelota Txapelketan eta bihar jokatu du lehen partidua Azkoitiren kontra, Hernaniko kiroldegian. Pasa beharreko kanporaketa dirudi, baina, taldean lesio dezente daude eta jokalaria guztiak ez daude puntuan. Ikusiko da igandean zenbateko maila ematen duen talde faboritoak. Goizeko 10:30etatik aurrera, kiroldegian. □

Kronika Txapelketa

KRONIKA Pelota Txapelketako finalaurrekoak jokatu dira gaur Ti-losetan, arratsaldeko 18:00etan. □

Umeen pala txapelketa

UMEEN pala txapelketa dago gaur kiroldegian, 11:00etan. Alebinetan: Perez-Villarrolain/Igantzi; Pagola-Ugalde/Gutierrez-Cortes. Benjaminetan: Montero-Arrieta/Irazustabarrena-Jorin; Zulaika-Cano/Huizi-Senperren. □

Diputazioak ukatu egin du Inzineradora non dijoan erabaki denik eta plataformei alarma soziala sortzea leporatu die

INZINERADORAREN kontrako plataformek errauste planta Arroan, Zubietan edo Errenterian joango zela adierazi berri dute. Horri erantzunez, Koldo Azkoitia Diputazioko bozeramaileak ukatu egin du inzineradora non dijoan erabakita dagoenik, eta esan du plataformak arduragabe jokatzari direla eta alarma soziala sortzen dabiltzala. Azkoitiak adierazi du Foru Aldundia aztertzen ari dela erraustegia non

jarri eta erabakitzean emango duela horren berri.

Zabortege berri bila

Diputazioaren planen arabera, inzineradora 2009rako egongo litzateke martxan, eta zabortege batzuk 2006an itxiko dira. Tartean San Markos. Bitarte horretan zaborrak nora bideratu aztertzen ari dira: beste probintziatako inzineradoretara jo, zabortege berriak egin bolada baterako eta abar. □

Akarregi poligonoan 7 enpresa berri eta Ubis haunditzeko baimena

■ Cintas Adhesivas Ubis enpresak 2 miloi euro inbertituko ditu anpliazioan.

UDALAK zazpi enpresa joango diren partzela erakitze baimena eman du aste honetako Gobernu Batzarrean. Akarregin oraingo partzela bat dago eraikia, eta beste zenbait bidean dira. Urbanizazio lanak ere aurreratuta daude, eta falta den obra nagusia Orbegozo zegoeneko puntu horretan rotonda egitea da.

2.000 m² ko lur saila

Bestalde, Udalak Ubis haunditzeko eskaera ere onartu du. 2.000 m² pasako lur saila izango da eta 2 miloi euro inbertituko ditu Lastaolako enpresak.

Azkenik, Gobernuak Robolan enpresari makinak egiteko baimena eman dio eta Hormigones Arcaistari Zikuñagan pabeiloi berria egiteko ere bai. □



LARRE-GAÍN
TOLARE-SAGARDOTEGIA

☎ 943 55 58 46
EREÑOTZU - HERNANI



Ondo pasa
San Antonio jaiak!

Sagardo naturala urte osoan botilan salgai

Ondo pasa




San Antonio jaiak!

IRUBIDE JATETXEA

- Eguneroko menua
- Asteburuko menua
- Plater konbinatuak

Epele auzoa 7 - Hernani
☎ 943 552 480

BASERRIKO SAGARDOA



San Antonio jai zoriontsuak opa dizkizuegu

GOIKO LASTOLA
SAGARDOTEGIA

Sagardogintza mantendu duten baserritarren omenez.

EREÑOTZU AUZOAN
TEL: 943 553272
HERNANI

Koadrila arteko desafioa gaur Ereñotzun

■ Arratsaldeko 19:00etan da herri kirol desafioa ■ Haur jaialdia eta txokolatada izango dira aurretik ■ Goizaldean dantzaldia dago Izotz taldearekin.

SAN Antoniotako festek gaur dute bigarren eguna Ereñotzun eta arratsaldea eta gaua pasatzeko festa izango da. 17:00-etan, umeentzako jaialdi erraldoia jarriko dute eta segidan txokolatada, goseak asetzeko.

19:00etatik aurrera, berriz, koadrila arteko herri kirol desafioa dago, baina, zer proba izango diren sekretupean daramakite eta momentuan bertan ikusiko da. Goizaldeko 24:00etatik aurrera dantzaldia

egongo da Izotz taldearekin.

Bihar San Antonio eguna
Bihar da San Antonio eguna eta egitarau bete bete daukate Ereñotzun, hasi goizetik eta gauera arte. □

JUBILATU ETXEA

San Joanetako festa ekainaren 26an izango da

JUBILATU Etxeak urtero egiten duen San Joanetako festa ekainaren 26an egingo dela jakin arazi du Goiz Eguzki Jubilatu Etxeak. 10:30etan irekiko da inskripzioa Bolo, toka, igel eta boterako; 11:00etan, bilarreko finalak jokatu dira; 11:30-etan, gimnasia tabla egingo dute; 12:00etan, sariak banatuko dira; segidan luntxa izango da; eta arratsaldeko 18:00etan, baile. □

GURE ETXOLA

Ikasleek egindako eskulan erakusketa datorren astean

GURE Etxola zentroak eskulan erakusketa jarriko du ekainaren 15 eta 16an, Gure Etxolan bertan. Zentroak urtero egiten ditu ikastaro horiek eta Lanak zentroko ikasleak egindakoak pinturak eta marrazkiak dira, eta baita bestelako eskulanak ere. Lanik onenentzat sariak ere banatuko dira egun horietan.

Gure Etxolak publikoari dei egin dio erakusketako lanak ikustera joan dadin. □

Herritarren

Zerrendak bilkura deitu du plazan, bihar eguerdirako

HZk bilkura deitu du bihar plazan eguerdiko 12:00etan. EHNA eramateko dei egin dute. □

Xakeko partidak

HERNANIKO Xake Txapelketan astelehenerako jokatu behar da zortzigarren jardunaldia: Josetxo-Mikel Apeztexea, Andreas-Ixidro Esnaola, Iñaki Zabala-Breogan, Gerardo Plaza-Eneko Pastor. □



Aurtengo txapeldunak partidak jokatu ondoren, kopa, txapel eta guzti.

Andoni eta Juanma Aralar tabernako mus txapelketako irabazleak.
Ostegun gauean jokatu ziren Aralar tabernako mus txapelketako finalak eta 3garren eta 4garren postuetako partidak. Irabazleak izan ziren Andoni eta Juanma, Aritz eta Urkori finala 4-3 irabazita; hirugarren, Manolo eta Jesus gelditu ziren; eta laugarren, Martin eta Urtzi izan ziren. Finala oso parekatua izan zen eta estualdi eta emozio haundiko momentuak izan zituen. □

■ HITZ BITAN

✓ MUS TXAPELKETAK

Pepe Caloca eta Unai Erroizenea onenak Irrintzi eta Txilibitan. Ereñotzuko Irrintzi eta Txilibita tabernetan ostiralero jokutzen da mus txapelketa, txandaka. Bi bitara jokutzen da, baina, bakoitzaren puntuazioa hartzen da kontutan, urteko irabazleak aukeratzeko. Irrintzin Pepe Calocak irabazi du; Patxi Deskarga bigarren; Tutu Ezeiza hirugarren; eta Julian Agirre laugarren. Txilibitan, berriz: Unai Erroizenea lehenengo; Ramon Huizi bigarren; Aitzol Zerain hirugarren; eta Arkaitz Santa Kruz laugarren. Zortzikoteak Fagollagan afaria izan du saria, eta lehen-go larunbatean izan ziren. □

ESKERTZA

Nicolas Santa Kruz Oiartzabal


Ekainaren 7an hil zen, 77 urte zituela

- Goian Bego-

Nicolasen senitartekoek eskerrak eman nahi dizkizuegu era batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeraten guztioi eta hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO

Hernanin, 2.004ko ekainaren 12an



ESKERTZA

Rosario Zabalegi Alustiza


Maiatzaren 27an hil zen, 83 urte zituela

- Goian Bego-

Rosarioren senitartekoek oso eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO

Hernanin, 2.004ko ekainaren 12an



ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalaria anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738
►Gauetz: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Bi ohe artikulatu (motorrarekin artikulatzen dira) dauzkat salgai. 90 zmk0 zabalera dute eta berri berriak daude. Prezioa adosteko Deitu: 943 33 37 67 . 943 33 05 84

Nissan Primera salgai. SS-AN. 1.200 euro. Interesatuak deitu: 661 86 22 19

Langile autonomia behar dugu, janari dendan lan egiteko. Deitu: 657 79 29 48

Peugeot 307 HDI salgai. 90 zaldi. 2002 urtekoa. 33.000 km. Klimatizadorea. 6 CDrentzat kargadorea. Interesatuak deitu (14:00etatik aurrera): 696 35 48 92

Opel Corsa salgai. Turbo Diesela. SS-AT. Egoera onean. ITVa pasa berria. Interesatuak deitu: 652 70 72 15

TXILIBITA TABERNA

Ereñotzu auzoa - 943 33 60 61

Ondo pasa
San Antonio jaia!

San Antoniotan hamaiketakoak eta bazkariak, ematen ditugu.



Antziola-Motor

Salmenta eta tailer zerbitzua

Ford FocusC-MAX

**Ford Focus
famiario
kide berria**



Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10- 13

ATXIKI Taberna

San Joan-etan afariak ematen ditugu enkarguz
Enkargatzeko:

☎ 943 331660



Eguneko menuak
Bokatak
Plater konbinatuak

Hernaniko Kiroldegia

Telemar

Itxastele, S.L

Elkano 13 - 943 55 33 99 - 943 33 00 49

MUGIKORRETAN:
produktu berria,
GPS a zure mugikorrean

Wayfinder Mobile Navigator



Galdetu konpatibildadea:
NOKIA 6600 NOKIA 3650
NOKIA 7650 NOKIA N-Gage
Siemens SX1 Sony Ericsson P800

ELEKTROGAILUETAN:

Malatzaren 1etik ekainaren 15era

"RENOVE" PLANA

%10eko deskontua
13 produktutan

Ez hasi ordaintzen
iraila arte.



INTERNET:

Oraindik ez al daukazu ADSLrik?
Zerorrek instalatu

Kit ADSL" USB

ALTA eta MODENA dohain